

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren 01787/2017 Foru Agindua, urriaren 16 koa, zeinaren bidez agirien ereduak ematen diren Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretuaren 46. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testuategina garatzen duena) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren aurrez ikusten diren lankidetzak-hitzarmenei dagozkien espedienteak izapidetzeko.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek sinatutako administrazio-izaerako lankidetzak-hitzarmenen motak definitzen eta arautzen dira.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan hitzarmenon gutxieneko edukia zehazten da, eta 50. artikuluan, berriz, zehazten da zer izapide diren nahitaezkoak hitzarmenak sinatzeko. Bada, izapide horien artean nabarmentzekoa da hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko duela, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz eta diru-laguntzaz bestelako izaera, eta lege horretan aurrez ikusita dagoena betetzea. Gainera, 53. artikuluan adierazten da hitzarmen batean hartutako konpromiso ekonomikoak 600.000 eurotik gorakoak badira, hitzarmen hori sinatu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidali beharko dela, eta hauek ere komunikatu behar zaizkio epaitegi horri: aldaketak, epeen luzapen edo aldaketak, hartutako konpromiso ekonomikoen zenbatekoen aldaketak eta adierazitako hitzarmenak azkentzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testuategina garatzen duena, eta dekretu horren 43. artikuluan hitzarmen hauek identifikatzen dira sektore publiko administratiboan:

- Diru-laguntzak emateko hitzarmenak
- Kontratu-hitzarmenak



- *Lankidetza-hitzarmen arruntak*

Eta azken horiei dagokienez, 46. artikuluan ezartzen da hitzarmenok «alderdien arteko akordio bat izango d(irel)a, helburu komun bat lortzeko», eta ezaugarri hauek dituzte:

- a) Alde biko izaera duen negozio juridiko bat izan behar da.*
- b) Helburu komuna interes orokorreko edo sozialeko jarduera bat egitea izan behar da.*
- c) Alderdien arteko lankidetza plano berean dago.*
- d) Hitzarmenak alderdien arteko elkarrekiko betebeharrak sortu behar ditu, ez ondare izaerako elkarrekiko prestazioak.*

Homogeneizatu egin behar da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean zein Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretuaren 46. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina garatzen duena) definitzen eta arautzen diren lankidetza-hitzarmenei lotutako administrazio-espedienteen egitura eta edukiak homogeneizatzeko beharrak eraginda, eredu batzuk landu behar dira, eraginkorragoa izan dadin kasu bakoitzean eskuduna den organoak espedienteak egin, fiskalizatu eta onesteko faseetan egin beharreko izapideak.

Ebazpen honen bidez onartzen diren eredu bidez agiri hauentzako jarraibideak zehaztuko dira, egiturari eta gutxieneko edukiei dagokienez:

- *Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren erabakia-proposamena.*
- *Lankidetza-hitzarmena.*
- *Justifikazio-memoria.*

Erabaki-proposamenaren testua lantzeko, Gobernu Kontseiluak hartu beharreko erabakien (hitzarmena egitea baimentzea, finantzaketa, ahalmena ematea dagokion diputatuari hitzarmena sinatzeko...) edukia bera baino lehenago, jarraibide batzuk ezartzen dira erabakion edukiari dagokionez, zeinek proposatzen diren erabakiak justifikatzeko balioko duten. Funtsean, azpimarratzen da beharrezkoa dela aipatzea zer lege-xedapenek ematen duten gaitasuna hitzarmena sinatzeko,



egiaztatu behar dela alderdiek hitzarmena gauzatzuz lortu nahi duten interes orokorreko helburua eta hitzarmenaren premia eta egokitasuna.

Lankidetzeta-hitzarmenaren testua lantzeko, berriz, kontuan hartu behar dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 49. artikuluan ezarritako gutxieneko edukiak. Proposatzen da zioen azalpena bera eta zenbait klausula erabiliz jasotzea edukiok, eta klausula horietako bakoitzean azalpen labur bat emango da bertan sartu daitezkeen edukiei edo testuei buruz; kasu batzuetan, gainera, hitzez hitzekoa izango da laburpena. «Zioen azalpena» atalean hauek azpimarratzen dira: justifikatu behar da zergatik den beharrezkoa hitzarmena sinatzea, identifikatu behar dira hitzarmena sinatzeko gaitasuna ematen duten lege-xedapenak, alderdiek eskumena izan behar dute hitzarmena sinatzeko, egiaztatu behar da hitzarmena egitearen premia eta egokitasuna, interes orokorreko helburu komun bat lortzeko, eta publizitaterik egin ez bada edo ez bada beste subjektu batzuen lehia sustatzeko jarduketarik egin, atal honetan egiaztatu beharko da interes ekonomiko, sozial edo humanitarioko edo bestelako zer arrazoi dauden, interes orokorreko helburu komuna lortzearen, justifikatzen dutenak hitzarmena egitea hura sinatuko duten subjektuen artean.

Lankidetzeta-hitzarmenaren ereduak, halaber, eranskin batzuk jasoko ditu, erreferentziako ereduak izango direnak egindako gastuen memoria ekonomikoa egiteko, alderdiek justifikazioa egiteko adostutako modalitatearen arabera.

Justifikazio-memoria egitea nahitaezko izapide da hitzarmenak sinatzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 50. artikulua dela bide; bada memoria horren kasuan, artikulua horretan ezarritakoaren arabera aztertu beharrekoak diren zenbait alderdirekin bat datorren atal multzo bat erantzun nahi zaio: hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz eta diru-laguntzaz bestelako izaera, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean aurrez ikusita dagoena betetzea.

Bestalde, ebazpen hau onartzeak 1305/2015 Foru Agindua aldatu beharra dakar; foru-agindu horren bidez, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-erakunde autonomoek egiten dituzten lankidetzeta-hitzarmenek eragindako gastua fiskalizatzeko prozedura ezartzen da. Foru-agindu honen bigarren xedapenean jasotzen da aldaketa hori.

Hori guztiori dela bide, honako hau



XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua: Agirien ereduak onestea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko VI. kapituluaren aurrez ikusitako hitzarmenei dagozkien espedienteak izapidetzeko.

Jarraian adierazten diren lankidetzaz hitzarmenak izapidetzeko espedientearen parte izango diren agiriak onestea, zeinak eranskin gisa gehitzen zaizkion foru-agindu honi.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenaren ereduak.
- Lankidetzaz hitzarmenaren ereduak.
- Justifikazio-memoriaren ereduak.

Bigarren artikulua: Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2015eko ekainaren 18ko 1305/2015 Foru Agindua aldatzea, lankidetzaz hitzarmenek eragindako gastua fiskalizatzeko prozedurari dagokionez; hala, d) puntua gehituko zaio prozedura horren barruko 4. artikulua 1. zenbakiari, eta honela geratuko da idatzita:

«d) Lankidetzaz hitzarmena egiteko justifikazio-memoria, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz eta diru-laguntzaz bestelako izaera, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen aurrez ikusita dagoena betetzea.»

Azken xedapena: Indarrean jartzea.

Foru-agindu hau 2017ko urriaren 16an jarriko da indarrean, eta beronen berri emango zaie foru-sailetako zerbitzu orokorrei eta foru-erakunde autonomoei.

Bilbon, 2017ko urriaren 16an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua

José María Iruarrizaga Artaraz.